

2. Bigarren multzoko ponentziak

Prestakuntza eta osasungintzako profesional euskaldunen sarea

Osasungintzako profesional euskaldunen sarea, Osagaiz aldizkaria eredu

Jose Ramon Furundarena

Donostia Unibertsitate Ospitaleko Hematologiako Zerbitzua, UPV/EHUko irakasle-ikertzailea eta Osagaiz aldizkariaren zuzendaria.

joseramon.furundarenasalsamendi@osakidetza.eus

Laburpena

2017ko ekainean aurkeztu zen prentsaurreko batean *Osagaiz* osasun-zientzien aldizkari berria, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen (OEE) eta Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) elkarlanari esker jaioa. Ez da ezerezetik sortutako egitasmoa izan, aurretik jende askok egindako lana ezinbestekoa izan baita. Alde batetik OEEk antolatu dituen hogeita zortzi osasun biltzarretan sakontasunez landu dira osasunarekin lotutako gaiak, eta profesionalek beren lanak aurkeztu ahal izan dituzte ponentzia, ahozko komunikazio edo poster moduan. Beste aldetik, UEUk eskarmentu handia du unibertsitate mailako arlo ugaritako ikasleei zuzendutako ikastaroak antolatzen eta edukiak liburutan eta formatu elektronikoa biltzen. Gainera, azpiegitura egokiak ditu arlo informatikoan eta komuni-kazioarenean, eta euskal komunitate zientifikoaren ikerketen IkerGazte kongresua antolatzearen ardura du UEUk.

Ez da ahaztu behar azken urteetan EHUk ematen ari diren aurrerapausoak osasun-zientzien graduetan gero eta ikasgai gehiago euskaraz irakasteko eta apurka-apurka ari dira argia ikusten ikasgai horiekin lotutako liburuak. Gradu amaierako lanak euskaraz egitea aukeratzen duten ikasleen kopurua ere goraka doa. Baditugu hainbat medikuntza-hiztegi ere denon eskura, bai paperean, bai interneten.

Testuinguru horretan sortu ahal izan da *Osagaiz* osasun-zientzien aldizkari berria¹, urtean bi zenbaki ateratzeko asmoz. Dagoeneko hiru zenbaki argitaratzea lortu da eta laugarrena ere bidean da. Aldizkariaren zenbaki guztiak PDF formatuan ikus daitezke ordaindu gabe www.osagaiz.eus webgunean. Osasun-arloko profesionalek egiten dituzten lan klinikoak, ikerketak, gai klinikoek berrikuspenak, beste aldizkarietan argitaratutako artikulu interesgarrien balorazio kritikoak, farmakoei buruzko azterketak eta erizainen lanak jasoko dira aldizkari berrian. Gradu amaierako lanak ere artikulu moduan moldatu ondoren oso egokiak izan daitezke aldizkarian argitaratzeko. OEEk 2018ko maiatzean antolatutako osasun biltzarreko material guztia zenbaki berezi batean jaso da, eta berdin egingo da datozen urteetako biltzarrekin ere. Euskaraz

Jose Ramon Furundarena

lantzen diren osasun arloko beste ikastaroen materiala argitaratzeko ere plataforma egokia izan daiteke *Osagaiz* aldizkaria.

Azkenik aipatu behar da Gipuzkoako Medikuen Elkargoarekin sinatutako hitzarmen bati esker jasotzen den babes ekonomikoa.

Gako-hitzak: osagaiz, aldizkari medikoa

Erreferentziak

1. J.R. Furundarena. Euskarazko komunikabideak osasungintzan: Osagaiz, osasun-zientzien aldizkari berria. *Osagaiz* - 2018 - 1. ale berezia – 27-30.